




Uribarri-Ganboa urtegiako bira



Garaio informazio puntua: 695 782 498
Aguraingo turismo bulegoa: 945 312 535
Murgiako turismo bulegoa: 945 430 440

Informazioa eta trackak eskuratzeko: www.alava.net



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Zuia's Koadrila
Cuadrilla de Zuia



CUADRILLA DE SALVATIERRA
AGURAIN ESKUALDEA



IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: Uribarri-Ganboa urtegiko bira

Uribarri-Ganboa urtegiaren perimetroa inguratuz, ibilbide honek Mendixur ornitologia parkera eta Landa eta Garaio Eskualde Parkeetan dauden Araba barreneko hondartzetara hurbilduko gaitu, bata eta bestea aisia eta atsedenerako leku paregabeak.

Km 0. Garaio Eskualde Parkean dagoen informazio etxearen ondotik abiatuko gara. Hau ezkerretara utziz errepidean aurrera egingo dugu, harik eta urtegiaren gainetik doan pasabidearen desbiderapena hartu arte. Ezkerretara, urtegiaren adarretako batean kokaturik, Mendixur Ornitologia Parkea ikusi dezakegu. Hau Ramsar hitzarmenak babestutako hezeguneen artean dago, migrazioan doazen ur-hegazti askorentzako babes- eta baska-lekua garrantzitsua baita. Urtegiko dikea zeharkatu ostean, GR 38tik-Ardoaren eta Arrainaren bidetik- gertu joango gara. Urtegia inguratuz Azuako herrigunerantz abiatuko gara. Bertako elizako aurrerik urtegiko pasabide berri batera hurbiltzen ari garela adierazten digute, oraingoan albo batera utziko duguna.

Km 13,4.- Laster helduko gara Langara-Ganboako herrigunera. Hau zeharkatu eta aldapa gogor baten ostean urtegiko presara hurbilduko gara, Zadorra ibaia berriki eraikitako pasabidetik zeharkatuz. Errepidetik jarraituko dugu oraingoan, pixkanaka gero eta gertuago ikusten dugun Uribarri-Ganboako herrigunera hurbilduz. Herrigunea zeharkatu ostean bidegorria hartuko dugu, Vitoria Klub Nautikoara heldu arte.



Aurrez aurre, urtegiaren panoramika ederra azaltzen zaizu. Bertan Landako herrigune txikia ikusi dezakegu. Harantz joko behar dugu, urtegia inguratuz.

Km 29.- Landako eskualde parkea zeharkatuko dugu, besteak beste mahai, eserleku eta iturriekin horniturik dagoena, belar artean galtzen den bide batetik jarraitzeko. Eskumara begiratzen badugu urtegiaren erdian dagoen Zuhatzako irla ikusiko dugu. Bertan dago Gazteriaren Foru Erakundeak kudeatzen duen aterpetxea. Belar gunea zeharkatuta bidea azaltzen da berriro ere. Urtegi ertzean kokaturik dagoen Marietararantz goaz lehenik eta pixka bata urrerago Azuako biaduktuarekin egiten dugu topo, oraingoan eskumaldean utziko duguna. Azken zatia ur-ertzetik egingo dugu, harik eta ur gaineko pasabidera heldu arte, hasierako puntura-Garaioa- hurbilduko gaituena.

MIDE



43,6 Km



100 m



9h 30' 5h



%100

Gogortasuna



1

Severidad

Orientazioa



2

Orientación

Desplazamendua



2

Desplazamiento

Esfortzua



4

Esfuerzo

MIDE ibilbideen gogortasun teknika zein fisikoa baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):



Ingurune naturalaren gogortasuna



Ibilbidean orientatzeko zailtasuna




Desplazamenduaren zailtasuna



Behar den ahalegin maila

PROFILA



IBILBIDE-ORRIA: Uribarri-Ganboa urtegiko bira



IBILTARIAREN DEKALOGOA

- 1.- Ibilbidearen plangintza egin alde aurretik
- 2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
- 3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
- 4.- Arropa egokia eraman
- 5.- Edari eta janari nahikoa eraman

- 6.- Ez ahaztu eguzkitako krema
- 7.- Landareak eta animaliak errespetatu
- 8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
- 9.- Ingurunea zaindu
- 112 10.- Larialdi-egoeran 112 telefonora deitu